

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko ekainaren 4a

IV. urtea • 158. zenbakia • DOAN BANATZEKO



GUILLERMO PEREA

“Etxebizitzaren arazoa konpontzen duen formula bat aurkitu dugu” /7

Goienka2a

Hegazkingintzaren inguruko erakusketa dago zabalik Oñatin



MIRARI ALTUBE

Aretxabaletan izan zen atzo Kontsumo Busa

Kontsumo Bus 2004 ekimena jarri berri du abian Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritzak. Euskal Autonomia Erkidegoko 40 udalerritara eramango dute, eta atzo, eguna, Aretxabaletan izan zen kanpainaren berri ematen duen autobusa. Ekimenaren helburua da kontsumitzaileari informazioa eta heziketa ematea. Hortaz, kontsumitzaileek dituzten esku-bide eta betebeharren berri eman zieten teknikariek atzo autobusera hurreratu ziren aretxabaletarrei; zalantzak eta kezka ere argitu zituzten. Eskolako umeei, bestalde, bertatik bertara ezagutu zituzten kontsumoaren gaineko kontuak.

ASTEKO GAIA: BI ELKARTEK KANPAINA EGINGO DUTE BIHAR IBARREAN

Inoiz ez dago organo emaile gehiegi

Organo Emailearen Astean gaudu, eta bihar, zapatua, informazioa eta emaile egiteko txartelak banatzeko mahaiak ipiniko dituzte bi elkarteek Arrasaten eta Bergaran. Transplantearen behar-rean egon diren edo dauden debagoiendarrak izango dira bertan. Ibarrean, apirilera bitartean, 27

emaile zeuden; maila ona da, baina organoen beharra inoiz ez dago aseta. Bizi-itzaropena altuagoa denez, osasun arazoak larriagoak dira, eta aukera handiagoak ditu inork organo beharra izateko, organo emaile efektibo izateko baino. Hori gogoan hartzea eskatzen dute elkarteek. /3

■ *Bi mahaiotan, bat-batean emaile egiteko aukera izango dugu*

■ *Garrantzitsua da familiak emailearen nahia errespetatzea*

A-1 AUTOBIDEA

Eskoriatzatik Arlabanerako zatia adjudikatu dute

Ferrovial-Sobrino enpresak egingo du A-1 autobideko Arlabango zatia. Eskoriatza iparra-Arlaban zatiak 10,48 kilometro izango ditu, eta besteak beste, eraikuntza lan hauek egingo dituzte: hiru kilometro eta 300 metro izango dituen Arlabango tunela eta Marin, Zarimutz, Mazmela, Uztarreta eta Apotzagako zubibideak. 34 hilabete dituzte lanok egiteko, eta 191,8 milioi euroko kostua. /4

Berrehundik gora lagun, abere hiltegiaren alde

Hiltegiak zabalik jarraitu behar duela esan dute, beste behin, eta Mankomunitateak ez diela inongo irtenbiderik proposatu salatu dute. Harakinak, abeltzainak, baserritarrak eta hainbat sindi-

katu eta erakundetako ordezkariek esan dute oraingoan. Hain justu, astelehenean egin zuten prentsaurrekoa Zubillagako hiltegiaren aurrealdean. Ondoren, auto eta traktore karabana egin zuten.



OIHANA ELORZA

Besteak beste, harakinak, baserritarrak eta abeltzainak agertu dira hiltegiaren alde.

IKER

%20 DESKONTUA SUKALDE ALTZARIETAN

SUKALDEAK: Udala Plaza z/g, Arrasate / 943 79 00 43
BAINUAK: Zarugalde 52, Arrasate / 943 79 99 42
ETA ORAIN OÑATIN: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48





Maalako Errabala, 13 • ARRASATE • 943 79 50 78

UNITED COLORS
OF BENETTON.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR eta ASPES etxetresna elektrikoetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERMEA
2
URTE

1.460
X
550
X
590 mm

HOZKAILUA 1FA255
265 €44.092 pta



BERMEA
2
URTE

1.850
X
598
X
590 mm

HOZKAILUA COMBI 1FAC495
359 €59.733 pta



BERMEA
2
URTE

800 b/min
5 kgr.

GARBIGAILUA LA383
295 €49.084 pta



BERMEA
2
URTE

1.000 b/min
6 kgr.

GARBIGAILUA LA4163
345 €57.403 pta



BERMEA
2
URTE

LABEA
H21410 BN
BITROZERAMIKA
VAP1400

LABEA eta BITROZERAMIKA
345 €57.403 pta



%10eko
deskontua
Renove
Planarekin

NO FROST

1.850
X
600
X
600 mm

BERMEA
5
URTE

HOZKAILUA COMBI F7017
669 €111.312 pta



%10eko
deskontua
Renove
Planarekin

1.850
X
600
X
600 mm

BERMEA
5
URTE

HOZKAILUA COMBI F7007D
649 €107.985 pta



%10eko
deskontua
Renove
Planarekin

1.100 b/min
6 kgr.

BERMEA
5
URTE

GARBIGAILUA L7110D
529 €88.018 pta



BERMEA
5
URTE

**AIRE EGOKITUA
HOTZA ETA BEROA**
290 eurotik aurrera



BERMEA
5
URTE

2.250
frigoría/h
20-25 m2
lokaletan
erabiltzeko

AIRE GIROTUA ADR 21
350 €58.235 pta

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Helburua: emaileak lortzea eta familiak kontzientziatzea

Organo Emailearen Astean, kanpaina egingo dute bihar bi elkartek

LEIRE KORTABARRIA


Euskal Autonomia Erki-degoa da mundu osoan organo emaile tasa altuena duen lurraldea. Argi dago elkartasun maila oso altua dela. Baina, organo emateari dagokionez, beti dago gehiagoren premia. Emailearen Astearen barne, kontzientziazio kanpaina egingo dute Debagoieneren bihar, zapatua, Alcer giltzurrunetako gaixoen elkarteak eta Atcore bihotzeko transplantatuen elkarteak. Alcerren postua Bergaran izango da, Irala kalean; Atcorena, Arrasateko Seber Altuben, biak ere goiz osoan. Elkarte biak helburu beraren atzetik ibiliko dira: informazioa eman, jendea kontzientziatu, eta bat-batean emaile egiteko aukera eman.

Euskaldunok emaile onak gara. Baina ezin da arazoa begi bistatik galdu. "Aste honetan bertan deitu digute Santanderko ospitaletik, jende asko organoaren zain dagoela esaten, eta mesedez jendea emaile egin dadin eskatuaz", dio Juan Arriaran Atcoreko kide mondragoetarrak. Berak badaki zer den emaile baten zain egotea; izan ere, bihotza transplantatu zioten.

Bizi-itxaropena gero eta luzeagoa denez, "orain aukera gehiago ditu edozeinek inoiz organo baten beharrean egoteko, benetako organo emaile izateko baino", dio Alcerko Kolde Nabarlaz psikologoak. Hori dela-eta, emaile asko egonda ere, organoak behar dituztenak ere gero eta gehiago dira.

EZEZKO MAILA AHALIK ETA BAXUENA

Aurtengo kanpainak baditu berezitasunak. Nabarlazen esanetan, "garrantzitsua da beste arlo batzuk ere lantzea; adibidez, emailearen familiak kontzientziatzea". Izan ere, emaile hil-



tzen denean, familiak beti du ebakuntza debekatzeko aukera. Hortaz, organoa erabilgarria bada ere, aukerak galdu egin daitezke. Hori galaraztea oso garrantzitsua da. Izan ere, organo emaileak egoera kontrolatuan ospitalean hil behar du organoa aprobetxagarri izan dadin; hortik aurrera, beste hainbat arazo egon daitezke. Ondorioz, egoera egokian hiltzen diren emaile guztietatik %1 bakarrik dira emaile efektibo.

Euskal familien jarrera nahiko ona da. EAEko eta Debagoienero zifrak onenariok dira: iaz, kasuetatik %6 izan zituzten debekuak EAEn; Estatuan, betoak kasuen %19 izan ziren. Nabar-

lazez dioenez, "normalean, pertsona hori emaile egin denean, eta borondatea argi utzi duenean, gurean, familiek ez dute oztoporik ipintzen".

Egoera, izatez, ona bada ere, Alcerren ustez, garrantzitsua da

senideei jarrera baikorra izaten laguntzea kanpainen bidez, heriotza gertatzen denean gertu egon daitezke. Hortaz, aurtengoa, norbera kontzientziatzeaz gain, elkarteak ingurukoak ere sentsibilizatzeko saiaturiko dira.

Umeak ere, emaile

Birziklatzea, besteokin elkarlana eta elkartasuna... Kontzeptu horiek bizitzako arlo askotan ezarri dira, eta horiek erabiltzen dituzte sentsibilizazio kanpainok. Irageanean geratu dira transplanteak eta organo-emateak "morboz betetako kontu" bezala ikusten ziren garaiak, Alcerko arduradunek dioten moduan. "Orain, mahaietara datorren jendea emaile egitera dator zuzenean, informazio bila baino gehiago", azaltzen du elkarteak. Are gehiago, orain adin txikikoak ere emaile egin daitezke; horretarako, gurasoek beretako txartela bete beharko dute, beste edozein emaile egin behar duen moduan.

Ibarrean, Asun Zubimendi bergararra eta Juan Arriaran arrasatearra izango dira bihar mahaietan. Emaile egiteko, han dagoen txartela bete beharko da. Emaile erregistro zenbaki bat daraman txartela jasoko du postaz emaile berriak.



Gipuzkoan 52.000 emaile daude, baina beti dago gehiagoren premia.

GOIENKARIA

Udako ikastaroak 2004

- Laguntza klaseak
- Enpresa zientziak
- Informatika
- Internet
- Programazioa
- Autocad
- Kontabilitatea
- Mekanografia
- Nominak
- Web orrien diseinua
- Photoshop
- Ingeniaritza (baita abuztuan ere)
- Informatikako ekipaien mantentze eta konponketa

AKADEMIA BASTIDA

Araba etorbidea 3, 1. pisua, Arrasate.
Tel.: 943 793 533 Faxe: 943 790 628
E-maila: bastida@bastida.es



Arrasateko Monterron jauregian eman zuten prentsurrekoa Debagoieneko Aralarako hautetsiek.

GOIATZ ARANA

Lehen lan urtearen balorazio positiboa egin du ibarreko Aralarrek

Jaso dituzten irainengatik minduta daudela ere esan dute zinegotziak

GOIATZ ARANA

Debagoieneko Aralarako hautetsiek udal lanetan betetako lehen urtearen balorazio positiboa egin dute. Edonola ere, herri plataformen legez kanporatzea dela eta jaso dituzten irainen aurrean minduta daudela esan dute.

Bergara, Elgeta, Arrasate eta Aretxabaleko Aralarako zinegotziak eguazten eguerdian Arrasateko Monterron jauregian bildu ziren, udal lanetan betetako lehen urtearen balantzea egiteko.

Batasuna eta herri plataformak legez kanporatu izanak hauteskundeak baldintzatu zituela adierazi zuten eskualdeko hautetsiek, eta baita agintaldirako

osaturako udal ordezkariak ere. Eta berretsi egin dute hauteskundeen ostean ordezkariak banaketa egin zenean, Aralar alderdiko kideek legez eman arren botoz ez zegozkien hautetsirik ez zutela hartu. Plataformei udaletan parte hartzeko proposamen zehatza egin zietela ere esan zuten, herri batzarrak sortuz aholku batzordeen bidez.

Herritarrak egoki informatuta izateko konpromisoa berretsi dute

BORONDATE POLITIKO FALTA

Proposamenak mahai gainean jarraitzen duen arren, EAJ-EAko eta herri plataformetako ordezkariak borondate falta erakutsi dutela adierazi zuten Aralarako zinegotziak, eta minduta daudela esan dute. Debagoieneko Aralarako hautetsiak irainduak izan direla ikusi dutela esan dute, eta horregatik minduta daudela gaineratu dute.

Gainontzean, urtebete honetan egindako lanarekin gustura azaldu dira Aralarako alderdiko kideak. Orain arte, AHT, ordainpeko autobidea, Atzerritarren Legea, garraio antolakuntza eta beste hainbat gairen inguruan lanean aritu direla esan zuten, eta herritarrak informatuta izateko konpromisoa berretsi dute.

Ferrovial-Sobrinok egingo du A-1eko Arlabango zatia

34 hilabete ditu enpresak 10,48 kilometro egiteko

OIHANA ELORZA

Aldundiak erabaki du Arlabango zatia nork egingo duen, eta, hala, A-1eko Eskoriatzako kaltetuen elkartea kezkatu dago. Joan den asteko bileratik baikor ateraziren, baina hemendik aurrera zer gertatuko den ez dakite ziurtasunez.

Eskoriatzako kaltetuen elkartek eskatutako aldaketak sartu gabe erabaki du Aldundiak lanak nork egingo dituen, aldaketa nagusiak onartu egin dituen arren. Horren harira, joan den astean egin zuten batzarretik baikor ateraziren kaltetuak, baina azken erabakiak kezkatu egiten ditu. Jabier Zuriarrain azpiegiturako diputatuak esan du Diputazioak lanak egin ahala eta bertatik bertara aztertuko dituela kaltetuen eskaerak. Kaltetuek Eskoriatzan jarri behar zuten ordainlekua kentzeko eskatu zioten Aldundiari, eta hark, ordainlekua Arabako zatian jarriko duela aurreratu zuen martitzenean.

Zuriarrainek gaineratu zuen Aldundia elkarriketaren alde egon dela beti, eta adierazi zuen bere sailak Eskoriatzako herritarrek eta Udalak aurkeztu dituzten 209 alegazioak banan-banan aztertuko dituela.

A-1 ordainpeko autobidearen Eskoriatza iparra-Arlaban zatiak 10,48 kilometroko luzera izango du, eta besteak beste, eraikuntza lan hauek egingo dituzte: hiru kilometro eta 300 metro izango dituen Arlabango tunela eta Marin, Zarimutz, Mazmela, Uztarreta eta Apotzagako zubibideak. Enpresa horrek 34 hilabete ditu lanok egiteko, eta 191,8 milioi euroko kostua.

Ordainlekua Arabako zatian jarriko duela aurreratu du Aldundiak

Lan hitzarmenaren alde lanuzteak Arrasateko Udalean

Goiburu taldearen jarrera itxia salatu dute

MARIA AGIRRE

Martitzen goizean batzartu ziren Arrasateko udaletxeko langileak, eta Enpresako Komiteko kideen esanetan, langileen gehiengo zabalak eman zuten lanuztearen aldeko botoa.

Lan hitzarmena oraindik sinatu gabe dutelako hartu dute erabaki hori langileek. Martitzenean bertan egin zuten langileek ordu eta erdiko lehenengo lanuztea.

Udaletako eta foru aldundietako langileek ARCEPAFE izeneko lan hitzarmenaren akordioaren arabera lan egiten dute. Bada, mobilizazioak deitu dituzten ELA eta LAB sindikatuek salatu dute azken hiru urteotan ez dela hitzarmena negoziatu, eta Eudelek aurrean ere ez duela negoziazio mahaia zabaldu ere egin. Langileek, bitartean, lanuzteak egiten jarraituko dute, eta negoziaketak aurrera egin ez badu, mobilizazioak gogortu egingo dituztela iragarri dute.

Oñatiko Herri Lasterketa

0.00.5401:03.36.4
:00.820ÑATIKO 708
0HERRI1:410.2002
100 LASTERKETA 2:1
2004

Europarako alderdiek Arrasate aukeratu dute kanpaina egiteko

Bestetan baino ekitaldi gutxiago egin dituzte

OIHANA ELORZA

GalEusCa, Alderdi Sozialista, Herrien Europa, Herritarren Zerrenda eta Aralar, esaterako, Europari begira jarri dira Debagoiengan ere, eta Bruselarako dituzten asmoak azaldu dituzte aste barruan egin dituzten ekitaldietan.

Europako hauteskundeetako hautagaien zerrendaburuak ez, baina bestelako hautagaiak izan dira astean zehar Debagoiengan, alderdi bateko zein besteko hautagaiak. Europan zergatik egon behar duten azaldu dute, eta zein asmo eramango dituzten.

Atzorako, eguena, adibidez, mitina deitu zuen Herritarren Zerrendak, Arrasateko Seber Altube plazan. Eguaztenean, berriz, Arrasaten bertan, GalEusCa koalizioko hautagai Patxi Bastarrika izan zen Joseba Egibarrek batera. Bastarrikak "Europa eraikitzen" ari dela esan zuen Monterronen, eta "estatuen Europaz gain, herrien, kulturen eta hizkuntzen Europa" nahi dutela esan

zuen. Bruselan erabaki garrantzitsuak hartzen direla gaineratu zuen. Horregatik, Bruselan "ahots propioa" izatea oso garrantzitsua dela esan zuen. Aralarrek ere Arrasaten eman zuen prentsa aurrekoan hitz egin zuen Europari buruz. Alderdiak ordezkari-tza lortzea "zaila" ikusten duela esan zuen, eta garrantzitsuena orain arteko bidetik jarraitzea dela gaineratu zuen. Bestalde, HZren legez kanporatzeari buruz, planto egiteko proposamenak bere horretan jarraitzen duela adierazi zuen.

KANPAINA MAKALA

PSOEko hautagai Gregorio Atxustegik Arrasateko merkatua aukeratu zuen, egubakoitzean, arrosak banatzeko. Herrien Europak, berriz, ez du ekitaldi ofizialik egin, baina bere furgoneta ibili da ibarrean. PPK, aldiz, ez du kanpainarik egin orain arte.

Udaleko, Legebiltzarreko eta orokorretako hauteskondeekin alderatuta, oso kanpaina pobrea egiten ari dira alderdiak, eskualdean, behintzat.



IKER BARANDIARAN

HZk astelehenean Arrasaten egindako giza katean, 80 bat lagun elkartu ziren.



UBANE MADERA

Kanpainako ekitaldi bakarra, eskualdean, eguaztenean egin zuen GalEusCak, Arrasaten.

LABUR

Ekainaren 19an inauguratuko dute ATECEko egoitza

Garuneko kalteak dituzten gaixoak hartuko dituen egoitza berria ekainaren 19an, zapatua, inauguratuko dute, Arrasaten. ATECE elkarteak orain dela urte asko hasi zen horrelako egoitza finko baten beharra aldarrikatzen. Egoitza berria Arrasateko Azoka kalean dago, eta eguneko zentrotroa izango da, Gipuzkoako bigarrena, hain zuzen ere. Eguneko zentroa oso egokিতuta dago, eta dagoeneko zabalik dago egoitza; 12 gaixo ditu.

Hizkuntza eskubideen aldeko agerraldia Iruñean

Iruñean, hizkuntza eskubideen aldeko manifestazioa egingo da bihar, zapatua, Kontseiluak deituta, eta autobusak antolatu dituzte hara joateko. Oñatikoa 15:15ean abiatuko da, eta 15:35ak aldera Bergarara iritsiko da. Eskoriatzatik irtengo da bigarren autobusa, 15:15ean, eta Aretxabaleta eta Arrasatekoak ere jasoko ditu.

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria-k** ekainaren 7tik aurrera beste aukera bat emango dizu, SMSak bidalita.

Bidali mezua: **gnkzorion [laga tartea] [mezua] 7744 zenbakira.**

Hurrengo **Asteleheneko Goienkaria-n** irakurri ahal izango du berak zure mezua...

SMSaren kostua 0,90 euro+BEZa

Gainera, Goienako edozein egoitzetara etorri edo deituz ere, zoriondu ahal izango dituzu lagunak eta etxeok **Asteleheneko Goienkaria-n!**

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



EKAIENAN

30

EGUN PAREGABE

Orain, ekainean, egunero eskaintza ezin hobea izango duzu. Astebetean bakarrik lor dezakezu, edo plazak bukatu bitartean. Zabilta arin!

KARIBE PUNTA CANA	725€	Prezioa pertsonako +42€ ERREGAIAREN IGOERAGATIK
Ekaina. Uztailaren 18ra arte. Iraila. Urria. 9 egun-7 gau. Hegazkina Madriletik. Hotelak**** (Ocean Bavaro Hotel. Punta Cana Princess Hotel). Dena barne.	129.630 Pta	
LANZAROTE	399€	Prezioa pertsonako +12€ ERREGAIAREN IGOERAGATIK
Ekaina. Uztailaren 18ra arte. Iraila. Urria. Hegazkina Bilbotik. 8 egun-7 gau. Los Fiscos eta Partner II Apartamentuak. Mantenu erdia.	66.388 Pta	
SALOU	220€	Prezioa pertsonako
06/19tik 07/2ra. 8 egun-7 gau. Carabela Rock Hotel****. Mantenu erdia. Haurrak (2-10 urte) lehen dohainik, bigarren %50eko deskontua.	36.605 Pta	
TUNEZ	315€	Prezioa pertsonako +14€ ERREGAIAREN IGOERAGATIK
Ekaina. Uztailaren 18ra arte. Iraila. Urria. 8 egun-7 gau. Hegazkina Bilbotik. Cadena Mouradi Hotel****. Mantenu erdia.	52.412 Pta	
COSTA DEL SOL	210€	Prezioa pertsonako
BENALMADENA. 06/12tik 07/1 era. 8 egun-7 gau. Best Benalmadena Hotel****. Mantenu erdia. Haurrak (2-8 urte) lehen dohainik, bigarren %50eko deskontua.	34.941 Pta	
COSTA BRAVA	230€	Prezioa pertsonako
LLORET. 06/26tik 07/2ra. 8 egun-7 gau. Eugenia Hotel****. Mantenu erdia. Haurrak (2-14 urte) lehen dohainik, bigarren %50eko deskontua.	38.269 Pta	

... Eta horrela uneko preziorik onena asteko egun guztietan

Viajes Eroski Bidaia

Grupo Eroski Kalitatea Bermatuta R

www.viajeseroski.es 902 15 87 35

ANTZUOLA

'Zinea izarpean' programa abiarazi du Udalak datozen hilabeteotarako

Gaur, egubakoitza, eskainiko dute Udaleko ardura-dunek *Zinea izarpean* programako lehen filma, eta uztailearen 23a bitartean, sei film ikusteko aukera izango dugu.

Udal Pilotalekuaren kanpoko aldean, frontoi txikian, hain zuzen ere, izango dira emanaldiak, ekain eta uztaileko egubakoitz gauean, 22:30ean.

Gaur gauean *El último Samurai* filma eskainiko dute, 22:30ean, esan bezala. Hurrengo emanaldiak izango dira ekainaren 11n eta 18an eta uztailearen 2an, 9an eta 23an. /A.I.



ARRASATE

Musakolako kirol-gunearen proiektua eguneratu egingo dute

Udalak berriro ekin dio Musakolan kirol-gunea egiteko proiektuari. Oraingo asteko Tokiko Gobernu Batzarak erabaki du orain dela hiru urte egindako proiektua eguneratzea, lanak egiten hasi ahal izateko. Helburua da herrian sakabanatuta dauden kirol instalazio guztiak Musakolan batzea. Hala, kirol instalazio berriak egingo dituzte: futbol zelaia, atletismoko pista, errugbi zelaia (atletismoko pistaren barruan), harmailak eta aldageletarako, biltegirako, kafetegirako... lokalak; baita saskibaloi kantxa, urruneko agintadun automobilendako pista eta skate pista ere. Era berean, Musakolako frontoiaren eta eraikin nagusiaren arteko instalazioak egokitu egin gura dituzte. Aurreikuspenen arabera, lanak datorren urtean hasiko dira. /U.M.

ARAMAIO

Bi aramaiorek hartuko dute parte aurtengo rallysprintean

Ekainaren 12an, Aramaioko III. Rallysprinta jokatuko dute. Eta dagoeneko berezitasun berezia dauka probak, aurreneko aldiz Aramaioko bi lagunek korritu behar dute-eta: Haritz Errastik eta Ander Oionek, 26 urtekoak. Usurbildik ekarritako Citroën AX Sport autoa korritzeko gertu dute, eta entrenatzeko aukera handirik izan ez badute ere, animoso daude herriko probarako. Haritz Errastik pilotu lanak egingo ditu eta Ander Oion izango da kopilotua. Sekula ez dute parte hartu halako proba batean. /U.M.

ELGETA

Aisialdi eta zaintza zerbitzuak ipiniko ditu Txirikil taldeak umeendako

Umeak oporretan daudenean haurrak zaindu ezin dituzten gurasoei irtenbide bat emateko zaintza eta aisialdi zerbitzua ipiniko du Goibeko elkartearen baitan sortutako Txirikil taldeak. Zerbitzu hau ekainaren 21ean ipiniko dute abian Udalaren eta Guraso Elkartearen laguntzaz eta uztailearen 30era bitartean luzatuko da. Izena eman nahi dutenek ekainaren 7a eta 21a bitartean udaletxera jo beharko dute. Ondoren, irailetik aurrera ere zaintza eta ludoteka zerbitzuak eskainiko ditu talde honek. /I.A.

OÑATI

Gorpuztiko prozesioaren atal guztiak erakutsiko ditu Makalena elkarteak

Datorren egunean, ekainak 10, aurkezpen berezia egingo du Makalena elkarteak Santa Ana aretoan. Gorpuztiko eguneko prozesioaren inguruko zehaztasun guztiak azalduko ditu, atalez atal.

Prozesioan ateratzen dituzten santuak nola jantzen eta orrazten dituzten, nola eta non gordetzen eta zaintzen dituzten santuak eta arropak, San Migelen trajea nolako den, zenbat pisatzen duen eta prozesioan egiten duen buelta eta erreberentziaren zentzua zein den erakutsiko dituzte, besteak beste. Prozesioaren argazki zaharrak eta berriak erakutsi eta Gorpuztiko dantzen esanahia ere azalduko dute. Baita Gorpuztiko kofradiak zenbat kide dituen eta zein lan egiten duen ere. Oñatiko bandaren 25. urteurrena ere gogoratuko du. Bertatik bertara guztia.

Guztiaren azalpenean, 30 lagun inguru egongo dira, eta bakoitzak ondoen

ezagutzen duen atala erakutsiko du. Joxe Errasti eta Fernando Diez ere —lehenago eta oraingo San Migel— egongo dira bertan.

AURTENGO BERRIKUNTZAK

San Migel berriaz gain, badago beste berrikuntza bat aurtengo prozesioan: santu bat gehiago aterako dute kalera, San Kristobal, hain zuzen ere, gidarien santua. Azken hilabete hauetan, Gasteizen dago santua berriztatzen, baina ekarriko dute prozesiorako. Horrela, guztira, 15 santu aterako dituzte aurtengo Gorpuztiko eguneko prozesioan. /OIHANA ELORZA

Zertzelada

30 lagun inguruk prozesioaren zehaztasun guztiak azalduko dituzte atalez atal, datorren egunean, 19:30ean, Santa Anan

BERGARA

Hamazazpi lagunek osatuko dute Euskararen Aholku batzordea

Euskararen Aholku batzordea ofizialki izendatzeko proposamena onartu zuen udalbatzak aurreko astearen. Bergarako Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zuen joan den urteko maiatzean, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskararen berreskurapen osoa lortzeko asmoz.

Batzorde horretan, politikagintzan, hezkuntzan, euskalgintzan, erlijioan, merkataritzan, kirolean eta komunikabideetan diharduten herriko 17 lagun izango dira. Udalerriko plan estrategikoa zehazteko aholkuak eman eta euskararen erabilera normalizatzeko urratsak zehaztuko dituzte. /E.M.



Udalak 2003ko maiatzean onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plana.

ARETXABAETA

Haurrei eskaintako astea egingo dute Kurtzebarri eskolan datorren astean

Astelehenean hasi eta egubakoitzera bitartean Haurrei Astea egingo dute Kurtzebarri eskolan. Haur Hezkuntzako ikasleak, hau da, 2 eta 6 urte bitartekoak, izango dira protagonista bost egunean zehar. Jolasak, dantza emanaldiak, zirkuari eskaintako eguna, txangoa eta Korri, Xalto eta Brinko pailazoaren emanaldia izango dituzte. Aste honetan, gainera, 2 urtekoen gurasoei mintegiak egin dituzte etxearen eta eskolaren arteko harremanaren garrantziaz, eta umearen garapenean familiak duen eraginaren gainean. /M.A.

ESKORIATZA

Arizmendiren VIII. Ferixie ospatuko dute bihar Eskoriatzan

Arizmendik antolatuta, VIII. Ferixie egingo da bihar. 10:30ean irekiko dituzte saltokiak; artisau, baserri eta ikasleen produktuak jarriko dituzte ikusgai. Gazte Asanbladak bigarren eskuko produktuena egokituko du. Ia 100 postu egongo dira herrian.

Txorimalo lehiaketan, euskal karaokean eta hainbat tailerretan parte hartzeko aukera izango dute gazteenek. Bestalde, harri-zulatzailerek erakustaldia egingo dute herriko plazan. Eta, amaitzeko, herri bazkaria egingo dute frontoian. /Z.V.M.

GATZAGA

Karrantza aldera abiatuko dira gaur herriko guraso elkarteak

GUREL elkarteko zenbait guraso eta seme-alaba Karrantzara (Bizkaia) joango dira gaur. Domekara arte. Bertan, Turtzioz herrian hartuko dute ostatu herriko 34 lagunek. Kobazuloak ikusiko dituzte, El Karpin Parke Naturaleko Dinosaurio Animatronikoen parkera joango dira, eta eguraldia lagun izanez gero, hondartzara ere gerturatuko dira.

Urtero egiten dute txangoren bat edo beste guraso elkarteak; aurtengoa, neguan, eskiatzera joan dira lehenengoz. /Z.V.M.

Gasteizko talde batek formula bat aurkitu du, egungo etxebizitzaren arazoari irtenbidea aurkitzen diona. Guillermo Perea Arrasaten egon da, eta formula hori edozein herritan aplikatu daitekeela esan du, baita eskualdekoetan ere.

OIHANA ELORZA

Erantzun, agudo: zein da formula hori?

Nork bere etxea eraikitzea.

Baina non eta nola?

Lanik ez duenak ezin du etxerik erosi, eta prestakuntzarik ez duenak ezin du lanik aurkitu. Bukararik ez duen istorioa da, bukatzen ez den soka.

Guk prestakuntza, lana eta etxebizitza lotu ditugu eta hauxe da gure proposamena: langabezian dauden herritar kopuru bati, eraikuntza sektoreko prestakuntza eskaintzea. Hau da, igeltsero, iturgin, arotz edo argiketari izaten irakastea, alegia. Eraikuntza enpresa batek egin behar dituen etxebizitza batzuk prestakuntza jaso duten langabe horiek egingo dituzte, eta etxebizitzetako batzuk beraiendako izango dira.

Baina posiblea da hori?

Bai. Duela bi urte hasi ginen ideia horri forma ematen, eta proiektua indartzen joan da. 2002an, kalkulu bat atera genuen: babes ofizialeko etxeak 111.200 euro balio zuen garai hartan eta kontuak atera genituen langile espezializatu baten kostua zenbaterakoa zen. Horixe zen martxan jartzeko behar genuen lehen datua.

Guk bagenekien babes ofizialeko etxebizitza bakoitzarengatik bost milioi pezetako (30.000 euro) etekina ateratzen zela. Eta bagenekien ere 21.000 eta 24.000 eurogatik ere lehian sartzen zirela eraikuntza enpresa batzuk. Garbi ikusten genuen negozioa zegoela hor, eta kontu gehiago ateratzen hasi ginen. Ikusi genuen langile espezializatu bat 15 euro orduko kostatzen zitzaioela enpresari, eta datu hori aztertzen hasi ginen, poliki-poliki.

Eta langilearen kostuak etxea ordain dezake?

Konturatu ginen langilea enpresari 15,03 euro kostatu arren, langileak ez duela horrenbeste kobratzen. Peoiak 4,81 euro kobratzen du ordua, gutxi gorabehera. Beraz, nora doa gainontzeko dirua? Zer gertatzen da horrekin?

Eta zer gertatzen da?

Kontu biribilak egitearren, demagun babes ofizialeko 100 etxebizitza egin behar dituela eraikuntza enpresa batek. Eta demagun, 100 horietatik 20 eraikitzen dituzten langileendako izango direla.

Etxebizitza bakoitzetik 30.000 euro ateratzen badituzte, 100 etxebizitzengatik 100 aldiz gehiago aterako dute. Beraz, guk hauxe planteatu genuen: 3.000.000 euroko etekina atera ordez, ia 560.000 gutxiago ateratzea, hau da, 500 milioi pezeta ordez, 407 milioi pezeta jasotzea.

Eta nori planteatu zenioten aipatutako tratu hori?

Merkatuan sartzea erabaki genuen, eta gure ideia eraikuntza enpresei eskaintzea. Alderdi guztiek izango dituzte irabaziak, baina galdetu genuen ea inor gertu egongo ote zen 500 irabazi beharrean, 407 irabazteko. Eta enpresa askok esan zigun baietz, askok, benetan. Guk, hala ere, enpresa bat ziurtatu nahi genuen, aurrerajarratzeko, eta lortu genuen.

Baina nolako da egitasmoa, zehazki? Nola gauzatzen da?



IKER BARANDIARAN

Guillermo Perea

INIZIATIBA IZAN DUEN GASTEIZKO TALDEKIDEA

“Etxebizitzaren arazoa konpontzen duen formula bat aurkitu dugu”

LANGILEEK ETXEBIZITZA IZANGO DUTE
“Langabezian dauden herritarrei prestakuntza eskainiko zaie eta lanean hasiko dira. Soldataren zati bat etxebizitzaren sarrera ordaintzeko gordeko da”

GIZARTE ERAKUNDEEN ETA INSTITUZIOEN BABESA
“Eusko Jaurjaritzak, esaterako, bere gain hartu du langabeen prestakuntza. Gizarteko elkarteetan laguntza du ideiak, eta legeak ere babesten du”

Batetik, langabezian dauden herritar batzuei, sei hilabeteko prestakuntza emango zaie. Hau da, igeltsero, garbitzaile, iturgin eta eraikuntzako bestelako lanbideetan aritzeko prestakuntza.

Prestakuntza ikastaroa egiten dutenen artean, 20 lagun aukeratuko dira, eta babes ofizialeko etxebizitzetan lanean hasiko dira. Bi urtez egingo dute lan gutxi gorabehera, eta soldata berezia izango dute. Langileari, gutxieneko soldata ordainduko zaio hilero. Azken baten, 3,01 euro jaso-

ko ditu orduko, eta orduko tokatzen zaizkion gainontzeko 12,02ak blokeatuta egongo den kontu korrante batean sartuko ditu. Horrela, eraikuntza enpresari orduko kostatzen zaizkion 15,03 euroak langilearendako utziko ditugu.

Eta zertan erabiliko da bildutako diru kopuru hori?

Etxebizitza eraikitzen eta bukatzen bi urte inguru behar badute, gure kalkuluen arabera, 45.000 euro izango ditu langile bakoitzak kontu korrontean obra bukatu

orduko. Diru hori etxebizitzaren sarrera ordaintzeko izango da. Ordaintzeko gelditzen den kopurua 30 urtean ordainduko dute. Hortik aurrera, lana bukatu duen langile bakoitzari etxebizitza bat emango zaio, eurek eraiki duten etxebizitza bat; 100etik 20 langabezian zeuden langileendako izango dira.

Nork babestu du egitasmoa?

Eraikuntza enpresez gain, zazpi auzotako hainbat elkarte, bilgune feministak, gazte erakundeak, Gasteizko beste 12 elkarte eta ehunka herritarrek. Gasteizko Udaleko ELA, LAB eta CCOO sindikatuek ere bat egiten dute gure ideiarekin, eta babes hori ikusi genuenean, Udalean mozioa aurkeztea erabaki genuen. 2002ko irailean hasi ginen ideia horrekin, eta abenduan aurkeztu genuen mozioa.

Lanpostupeko etxebizitza sozialaren egitasmoa izeneko txostena aurkeztu genion Gasteizko Udalari, eta oso harrera ona izan zuen. Lehengo agintaldiko alderdiak zeuden orduan Udalean.

Udalaren babesa ere jaso duzue?

Planteamendu guztia ondo aztertu ondoren, bi txosten eman zigun Udalak, juridikoa bata, eta ekonomikoa bestea. Txosten juridikoak ideiarekin aurkako erabaki asko jasotzen zituen. Ekonomikoak, ordea, baldintza bakarri jarri zigun: kreditua 264,45 euro izango dela hilean, eta 30 urtean ordaindu beharko dutela. Guk baietz esan genion berehala txosten ekonomikoa.

Txosten juridikoari, berriz, irtenbidea aurkitu genion. Langileak autonomo bihurtuko dira, eta kooperatiba bat sortuko dute. Baldintza horiek txosten juridikoak jasotzen zituen legezko arazo guztiak gaingaitzen zituzten.

Eta zer dio Eusko Jaurjaritzak?

Arazo legala gaingaituta, Jaurjaritzara jo genuen, eta akordioa egin genuen Lan, Prestakuntza eta Gizarte Segurantzaren Departamentuarekin. Horren arabera, Jaurjaritzak bere gain hartzen du langileen prestakuntza. Horrez gain, dirulaguntzak emango dituela ere idatziz jaso du, langileek orduko 3,01 euro baino gehiago kobratzeko.

Udalak, aldiz, traba gehiago jarri digu, baina azkenean, Jaurjaritzako eta Udaleko ordezkariak Gasteizko udaletxean bildu genituen, eta hantxe lortu genuen Udalaren lehen konpromisoa. Alderdi Popularrak traba handiak jarri zizkigun, baina azkenean, ikertzeko konpromisoa hartuko zuela esan zuen. Gaia jarraitzea egokitu zitzaion zinegotziak Euskal Herriko kooperatiben erakundearekin, Jaurjaritzako Etxebizitza Departamentuarekin, INEMekin eta beste hainbat udal erakunderekin hitz egin zuen, eta guztiek ideia onargarria dela esan zioten. Gainera, kooperatiben erakundeak esan digu egoera honetan egiten diren etxebizitzetan esleipena zuzena dela.

Noiz jarriko duzue martxan ideia?

Bi urte daramatzagu ideia honekin, eta Gasteizko Udalak, PPK, ez digu aukerarik ematen. Gauza bategatik edo besteagatik atzeratu egiten du. Gu gertu gaude Arabako beste edozein herritan egiteko ere, baina Gasteizko Udalak aprobetxatu egin beharko luke. Baita Alderdi Popularrak ere, langabeen alde lan egiten duela esateko bada ere. Dena gure alde dago, denon babesa daukagu, PPrekin inizatiba falta da bakar-bakarrik. Langabeen prestakuntza ikastaroak ere laster hasiko dira.

Edozein herritan aplikatu daiteke formula berri hori?

Bai, horixe. Dagoeneko Bilboko San Frantziskok inportatu du ideia. Eta Jaurjaritzak ere Euskal Herri osora zabaltzeko nahi du. Izan ere, edozein herritako udalak nahi duenean aplikatu dezake.

Gutunak

Istripua izan arte

Maiatzaren 31 da, astelehena, arratsaldeko zortziak eta hamar. Bergarako jaiak dira, eta ni, kanpoan lan egiten dudanez, oraintxe bertan heldu naiz Bergarara. Sekulako gogo daukat autoa garajejan sartzeko eta lagunak deitzeko, baina barianteko semaforoa berde jarri denean, konturatu naiz gaur ere Algodonerako bidea oraindik ez dutela konpondu, eta itxita dagoela. Gaur ere direktzioz kontrako bidea egin behar dut autoarekin, kallejoitik gainera...

Bergarako kalerik estuenerariko bat (kar, kar, gainera joan zen astean trailer handi bat sartu zen Artzamendi kaleko errotondaraino... eta orduan konturatu zen gidaria kale itxia zela, a zela-ko haserrea zeraman...).

Kokoteraino nago egunero hau egiteaz, eta eskerrak espaloi gainetik ez naizen pasatu behar, bestela autoaren hagnak akabo...

Egunen baten istripu bat izan behar dut Tokiederretik irteten den autorek batekin.

Kontxo, hau bai kasualitatea, istripu bat egon da San Antonio elizaren aurrean. Eskerrak nire autoa ez den izan (egia esan ez nau batere harritzen, harritzen nauena da istripu hau izatea lehenengo).

Etxera noa korriketan argazki kameraren bila GOIENKARIA bidaltzeko, ea norbait lotsa ematen dion gure herria hola egotea hilabetetan. Bueno, argazki kamerarena laga egingo dut, muni-pak hemen daude, eta ez dut nahi inor haserretzea.

Pentsatzen jarraitzen dut, eta konturatzen naiz, nola Euskal Herriko itzulirako konpondu zuten, baino hurrengo asterako berriro itxita zegoen kale hori.

Alkate jaunari gustura galdetuko nioke hau: zergatik herriaren aurpegia makillatu kanpotarren aurrean, eta gu gaizki tratatu? Baina ez dut uste konponbidea hori izango zenik. Igual egin beharko genuke auzokide batzuk elkar-tu eta alkatearen auzoan errepidea moztu, hark jakin dezan zer den egunero leku arriskutsuetatik pasatzea autoarekin. Ez, hori oso erradikala da.

Lotsa ematen dit gauza hauek nire herriari buruz pentsatzeak, baina orain dela bi hilabete (datu hau ez dut ondo gogoratzen) gure auzo lagunak diren Movillas lantegiaren ondoko biztanleak ikusi nituen auto baten Santa Marinaren paretik pasatzen pankarta batekin. Ez dut ondo gogoratzen zer jartzen zuten, baina gai hark gutun honen gaiarekin antzekotasun handia zuen. Bergarako kale batzuk egoera kaxkarrean daude, batzuk arrazoi naturalez, eta beste batzuk pertsona batzuen inkompetentziagatik.

Gure etxerako bideak ez daude egoera onean, mesedez, konpondu! Oze-

nago bai, baina argiago ezin daiteke esan.

Zenbat hilabete pasatu dira lanak hasi zirenetik? Hiru hilabete? Lau? Zenbat hilabete pasatu behar ditut oraindik nire autoarekin egunero-egunero, kale arriskutsu batetik igarotzen? Zenbat egun pasatuko dira istripuko auto hori nirea izateko? Istripu hori izaten badut zeinek ordainduko ditu kalteak? Udalak? Alkateak? Muzizipalek? Eta aseguruaren igoera?

Lotsa ematen dit. Inpotentzia sentitzen dut. Alkateari gogorarazi nahi diot Bergara ez dela bakarrik erdialdea.

Puntua moztu egin dit gertaera honek. Hala ere, telefona hartu eta lagunei dei bat egingo diet, igual horrela eguneko gauza txarrak ahaztea lortuko dut, behintzat autoa hartu behar dudana hurrengo unera arte. Jo, bihar da hurrengo une hori...

ARTZAMENDIKO BERGARAR BAT
Bergara

Torturaren aurka azaltzeagatik 300 eurotako isuna

Torturaren Aurkako Taldeak otsailaren 14an, ONUren Nazioarteko Torturaren Aurkako Eguna zela eta, manifestazio nazionala antolatuta zuen Donostian eta Arrasateko TATEk aipatutako manifestaziorako deialdia eginez, mobilizazio ezberdinak burutu zituen aurreko egunetan. Hauetako bat manifestaziora joateko deia luzatzen zuten pankartekin herriko biribil ezberdinetan egotea izan zen. Eroski inguruko biribilean ordubetez egon ondoren, mobilizazioan parte hartu zuten bi lagun inguruan zeuden farola batzuetan aurrez erabilitako pankarta jartzera abiatu ziren. Ertzaintzaren furgoneta bat ziztu bizian hurbildu zitzaizen argi eta guzti. Furgonetatik bi ertzain jaitsi eta identifikatzeko agindu zieten. Bi lagunek zergatik identifikatu behar zuten galdetzean, bertan pankarta jartzerik ez zutelako erantzun zieten. Identifikatzeko arrazoirik ez zegoela ikusita arrazoiak eskatu zituzten. Honen aurrean ertzainek jarrera gogortu zuten. Tirabira luze baten ostean eta oraindik identifikatzearen arrazoiak jaso gabe bi kideek beraien buruak identifikatu zituzten.

Gauza ez zen Ertzaintzaren beste handikeria kasu bat baino gehiago izango orain bi aste pankarta jartzera zihoran lagunetako bati seinale baten ikusmena oztopatzearen akusaziopean denuntzia heldu zitzaion arte.

Ez da kasualitatea bi lagunetatik eskubideak jarrera irmoago batekin defendatu zituen lagunari bakarrik

denuntzia heldu izana. Gainera denuntzia aurrera eramateko trafikoa arazo moduan bideratu dute. Denuntzia hartutako jarreraren aurkako bengantza zikin bezala erabili dute.

Egoera honen aurrean Arrasateko TATEk Ertzaintzaren jarrera zapaltzaile eta harroa salatu nahi du. Pankartaren kontua baino gehiago, jendea torturaren aurka mugitzea da ardura zaiena, pankarta jende hau kontrolatuta (identifikatuta) edukitzeko argudio bezala erabili baitute. Gizateriaz bertan jartzerik ez zegoenaren azalpenak eman balituzte pankartarekin beste alde batera joango lirakeke berau jartzera. Zer dute Torturaren kontrako mugimenduen aurka? Zerk mintzen die torturaren aurkako autuan? Zer erlazio dute torturarekin?

Ezin dugu indar polizialen jarrera salatu beraien gainetik dauden agintariena salatu gabe. Otsailean Europar Batasuneko torturaren aurkako idazkariaren txostenean, Espainian tortura ahalbidetzen dela azaldu zenean, ahoa torturaren aurkako hitzez bete zitzaizen beraien herriari, eguneroko torturaren aurkako lana etengabe oztapatzen dutenean. Guk egiten duguna beraien lana beharko luke, hasteko, urrutira joan gabe, beraien etxean gertatzen dena konponduz.

Azkenean gazte batek torturaren aurkako manifestazio batera deia luzatzeagatik 300 euroko isuna jaso du. Gertaera hauen aurrean torturaren aurkako salaketan, inork ez ezker ez gaituela geldituko adierazi nahi dugu, eta berarekin amaitu artean, lanean tinko mantenduko gara. Torturari stop!

ARRASATEKO TAT
Arrasate

25 urte ta segi aurrera

Jarraipenak, telefono pintxatuak, autotan "eskutxak", atxiloketak, isunak, ilegalizazioa... 25 urte pasa dira euskal gazte mugimenduak salbuespen egoera hau bere eguneroko errealitatetzat hartu zutenetik, 25 urte pasa dira euskal gazteriak estatu espainolak zein frantsesak jarritako oztopo hauek salto egin eta aurrera jarraitu duela. Zerk bultzatu dezake horren boteretsuak diren bi estatu hauek gazteen aurkako neurri horiek hartzea eta berriak ere gazteen aurka frogatzera? Adibide gisa, egun hauetan estatu frantsesean Garzón epailearen aginduz eta euro ordena delakoaz baliatuz erregaren zain dauden hiru gazte militante lapurtar. Zerk bultzatu dezake milaka eta milaka euskal gazte, errealtate hau ezagutuz, Jarrai, Haika edo Segi bezalako erakundeetan antolatzea?

Arrasateko Segi-tik bi galdera horiei maila ezberdinetako erantzunak aurkitu dizkiegu.

Lehenengo galderari erantzutea erraza suerta dakiguke, euskal naziotasunaren eta eredu sozial berrien alde doan edozer jipoitzea litzateke. Baina zergatik gazte mugimendua?

Guk bezala beraiek ere ongi dakite gazte mugimenduak Euskal Herri aske eta sozialista bat ikusteko gogo bizia dugula, hau gatazka egoera baten jaiotzearen ondorio izan daitekeelarik. Gainera, gazteak izanda energia, ausardia eta borrokarako grina gure bertute direla ere badakite.

Honek guztiak, ezker abertzalearen motorren gasolina garelara adierazten du, eta honek ere gatazkaren subjektu bilakatzen gaitu. Ausartak garelara esaterakoan ez du esan nahi ezker abertzaleko beste erakunde batzuetako militantek baino ausartagoak garenik, baina, bai kasu batzuetan aitzindari. Guk sortu genuen Kanbon Euskal Herri osoko lehen erakundea, Hegoaldeko Jarrai eta Iparraldeko Gasteriak batuz eta bi errealtate ezberdin hauetako gazteak leku berera begira jarri genituelarik.

Arrazoi horiek gure etsai kolonialisten eskematik at geratzen dira eta egunez egun gazte erakunde hau arbolatik erortzeaz dagoen sagarra bezala heltzen ari dela ikusten dute. Beraiek eta beraien indar militarrek sagarra erori aurretik batzea nahiko lukete, baina gure arbola hain da garaia ez direla heltzen, beraz, arbolak moztzen saiatzen dira berriak landuta daudela ohartu gabe.

Bigarren galderari erantzuteko, guk jarri ditugun arrazoiak gu militatzera bultzatu gaituztenak izan litezke. Egoera hausnartu genuen eta bertan hutsune eta gabezia askok gure kezka piztu zuten, irtenbidea antolakuntza eta borroka bidetik zihola ikusita.

Beraz, gure izaerari begiratu eta gure pentsaerarekin bat egiten zuen talde batean hasi ginen.

Beranduago konturatu ginen gazte erakunde horrek gure bizitzan zer suposatuko zuen; gazte erakunde horrek bizitzarako balore batzuk eman dizkigu eta etorkizunerako gaztetasuna.

Gure erakundea gazte problematika askoren inflexio puntua ere bada izaera sendoa baitauka.

Ezkertiarra, abertzalea, eredu sozial berritzailea, iraultzailea, internazionalista, homofobiaren aurkakoa, arrazakeriaren aurkakoa, independentista eta sozialista da gure erakundea.

Arazoak arazo, oztopoak oztopo beste Euskal Herri bat lortu arte, gazte segi aurrera.

25 urtetan ezin izan duzue eta aurrerantzean ere ezin izango duzue. Gora jarrai, Haika eta Segi. Gora euskal gazte erakunde independentista iraultzailea.

SEGI
Debagoiena

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendietza,
Miguel Angel Elkorobereziabar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Iratxe Bengoa, Arantazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantxabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

ESTETIKA

“Bakarrik lan pertsonalizatuak ekartzen ditu benetako emaitzak”

Lirain Zentroak inguruko zentro aurreratuen eta haundiena da. Bere talde profesionalak LPG Teknika aurkezten dizu orain: koipe lokalizatuaren aurka egiten eta irudi politagoa lortzen lagunduko dizu.

Lau hitzetan, zer da LPG teknika?

Endermologie® ez da soilik zelulitiaren aurkako tratamendu bat, ezta bakarrik emakumezkoen zuzenduta ere; Endermologie® teknikak koipe lokalizatuaren aurka egiten eta irudi politagoa lortzen ere lagundu gaitzake, eta baita orokorrean osasun maila hobetuzko izaten, bai gizonezkoen eta baita emakumezkoen ere. Gizonezkoen, sabelaldean eta bularralde inguruan arazoak zituzten kasuetan oso emaitza onak lortu ditugu.

Noiz komeni da tratamendu hau egitea?

Koipe ugari, zirkulazio arazoak, likidoen erretentzioak eta zelulitia izanez gero edozein momentua da egokia. Gogoan izan behar dugu, zelulitia hasierako fasean ez badugu tratatzen ehunaren esklerosia eman daitekeela eta orduan ez dago zer egirik. Esan behar, orain dela jendea gehien arduratzen den sasoi, eguraldi onarekin bistan geratzen bait dira arazo hauen adierazgarriak.

Zer nolako onurak ekartzen dizkigu?

LPG teknikak hainbat erabilera ditu. Horra hor: - gorputza moldeatu eta bolumena

gutxitzen du.

- koipea galtzen lagundu eta lipolisia sendotzen du

- zelulitiaren aurka egiten du, baskularizazioa bizituz eta toxinak kanporatzen ditu.

- likidoen erretentzioa gutxitzen du zain eta linfaen sistema hobetuz.

- azala bere onera ekartzen du -zelula hilak kentzen ditu- betiko disdira eta hidratazio bereganatuz.

LPG-ak pisua galtzen laguntzen al digu?

Laguntzen du, baina benetan gainpisuaren arazoa gainditzeko elikadura zaindu eta kirol pixka bat ere egin behar da. Honen inguruan, Lirainen dietista baten zerbitzua eskaintzen dugu eta kirolaren inguruan ere aholkuak ematen ditugu.

Azkar nabaritzen dira LPG teknikaren emaitzak?

Hori norberaren arabera dago. Lirainen ez dugu saio kopuru bat ematen, gure filosofiaren aurka doa. Gainera LPG teknikaz gain beste teknika batzuk ere erabiltzen ditugu emaitza hobetuz.



M. Carmen Pardo Abad.
Lirain Zentruko arduraduna

lortzeko. Orokorrean emaitzak nahiko azkar nabari dira; bolumena gutxitu, zirkulazioa hobetu...

Barizeak izanez gero, Endermologie® teknika erabili dezakegu?

Barizeak izatea ez da inolako kontraindikazioa, alderantziz, tratamendua bereziki zabel, gerri eta bizkar aldean ematen da, kongestioaren aurka eginez eta zainen egoera hobetuz, eta horrela, zirkulazioa hobetzen da eta

baita barizeak ere. Tratamendua ez da zuzenean barizeak dauden tokian ematen.

Zuen sektorean garrantzitsua izango da teknologia aldetik azkenean egotea; ze nolako estrategia jarraitzen duzue gai honetan?

Bai, egia esan garrantzitsua da eguneratuta egotea. Aparatu berriak irtetzen dira, bezeroaren beharrak hobeto betetzen dituenak, beraz lehiakorra izaten jarraitzeko merkatuan dagoen onena eskaini behar duzu. Zentsu honetan, Lirain gure inguruko zentro aurreratuena eta haundiena dela esan dezaket. Urte bete baino gutxiagoan, gure zentroak bi handitze lanak burutuko ditu eta aparatu aldetik ere inbertsio handia egin dugu epe honetan; Laser aparatua, LPG-a, bi Evolution aparatua eta baita Lipofit aparatua ere.

Beraz, guzti honekin emaitzan bermatuta daude?

Garrantzitsua da aparatu aldetik eguneratuta egotea, baina ezin dugu ahaztu beste bi arlo; lan taldea eta eskaintako zerbitzua. Lirainen, gaur egun 7 profesional gaude lanean eta guztion formakuntza iraunkorra lantzea eta hobetze izpiritua mantentzea ezinbestekoa da. Honek eskaintako zerbitzuan eragin zuzena du. Honen inguruan, garrantzitsua da bezeroa ezagutzea; zer nahi duen eta zeintzuk diran bere behar eta itxaropenak. Horretarako, Lirainen tratamendu pertsonalizatuak egiten ditugu, bezero bakoitzari egokitutako erantzun bat emanez. Bakarrik lan honek ekartzen ditu benetako emaitzak.

Kontuan hartuta uda datorrela, ze nolako aholku emango zenuke orokorrean?

Eskaintzen ditugun tratamendu aukera zabalaz gain, sasoi honetan aholku berezi bat ematen diot jendeari; azala zaintzeko. Udan azalak asko sufritzen du; eguzkia, ondartza... Bakoitzak azal mota bat dugula kontzientziatu behar gara eta krema eta produktu guztiak ez dira gure azalaren beharretara egokitzen. Zentsu honetan garrantzitsua da profesional batekin kontsulta egitea eta benetan gure azala eta gorputzarentzat onuragarriak izango diren produktuak erabiltzea.



LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA

Lirainek
GORPUTZ-TRATAMENDURAKO
LPG teknika aurkezten dizu

Gorputz osoarentzako onuragarria: organismoaren eta azalaren funtzio naturalak berreskuratzen lagunduko dizu.

Tratamendu integrala eskeintzen dizugu:
DIETETIKA KONTSULTA PERTSONALIZATUA + LPG TEKNIKA

ESKA EZAZU AURREKONTUA, KONPROMISORIK GABE

Debagoieneko estetika-gunerik haundiena. Teknika eta tresneria aurreratuenak zure esku.

Bixente Ferrer, 1 20500 ARRASATE Tel: 943 79 52 17

Kirolez josita dator uda kanpaina

Adin guztiendako kirol ikastaroak antolatu dituzte, eta izena emateko epea zabalik dago

OIHANA ELORZA

Tenis, aerobika, piraguismoa, mendiko bizikleta, yoga, eskalada, igeriketa eta beste hainbat kirol ikastaro antolatu ditu Debagoieneko Kirol Zerbitzuak udarako. Haur, gazte eta helduendako kirolak dira. Hainbat txanda antolatu dituzte, eta plaza mugatuak daude.

Adin guztiendako kirol ekintzak antolatu ditu, beste behin, Debagoieneko Kirol Zerbitzuak, udarako. Herri gehienetan, ekain eta uztaileko antolatu dituzte, baina abuztuaren egongo da kirola egiteko aukera. Hainbat txanda antolatu dituzte eta parte-hartzaileen kopurua mugatua da. Prezioak ezberdinak dira kirol batean edo bestean, eta Kirol Zerbitzuko bazkideek gutxiago ordaindu beharko dute.

ZER ETA NON

Aerobika, esaterako, herri guztietan eskainiko dute, gazte eta helduendako, gainera. Eta zenbaitzuetan, spinninga ere bai, horrekin lotuta. Urarekin lotura zuzena duten kirol asko antolatu dituzte uda kanpainarako. Adibidez: igeriketa, piraguismoa, aquagima eta waterpolo. Tennis ikastaroak ere arrakasta handia izaten dute udan, eta Oñati, Bergara, Arrasate eta Aretxabaletan, aditu eta hasiberriendako tennis ikastaroak antolatu dituzte. Patin gaineko ikastaroa, golf, yoga, xakea, eta eskalada ere badaude aukeran.

Kirol gehienak herriko kiroldegietan, igerilekuetan eta pilota lekuetan egingo dituzte. Mendiko bizikleta eta piraguismo jarduerak, berriz, inguruko ibilbideetan eta erreketan egingo dituzte.



Kirol ikastaro asko barruan egingo dira, eta kanpoan beste batzuk.

Urarekin lotura zuzena duten kirol ikastaro asko antolatu dituzte aurten: piraguismoa, waterpolo, igeriketa eta aquagima, besteak beste

IZENA EMATEKO EPEA, ZABALIK

Aste honetan bertan zabaldu da udako kirol kanpainan izena emateko epea, eta herri batzuetan laster itxiko da. Antzuolan, esaterako, datorren martitzenean bukatzen da epea, ekainaren 8an, eta Aretxabaletan, ekainaren 11n.

Arrasaten, ekainaren 21ean, eta Bergaran, uztailearen 7an.

Plazak mugatuak dira kirol ikastaro guztietan eta ordutegiak ezberdinak dira. Prezioak ere aldatu egiten dira, eta egokiena da kirol etxeetara deitu eta informazioa eskatzea.

UDA KANPAINA HERRIZ HERRI

Kirola	Adina	Prezioa (€)
ARRASATE		
Aerobika	>16 urte	18-29 artean
Arku tiroketa	>8 urte	18-21 artean
Aquagyma	>20 urte	24/18 (bazk.)
Eskalada	16-29 urte	21/18 (bazk.)
Esku pilota	8-16 urte	21/18 (bazk.)
Gimnasia	>20 urte	27/21 (bazk.)
Golfa	8-29 urte	21/18 (bazk.)
Multikirola	>8 urte	10-21 artean
Muskulazioa	>20 urte	28/22 (bazk.)
Patinajea	>8 urte	21/18 (bazk.)
Spinninga	>16 urte	18-29 artean
Squasha	8-29 urte	21/18 (bazk.)
Tenisa	>8 urte	21/18 (bazk.)

Kirola	Adina	Prezioa (€)
BERGARA		
Aerobika	>8 urte	17/14 (bazk.)
Arku tiroketa	>15 urte	17/14 (bazk.)
Eskalada	>8 urte	16/13 (bazk.)
Igeriketa	>3urte	13-19 artean
Multijarduera	9-14 urte	32/26 (bazk.)
Patin-hockeya	6-14 urte	17/14 (bazk.)
Patinajea	>15 urte	17/14 (bazk.)
Pilota jolasak	5-14 urte	16/13 (bazk.)
Piraguismoa	>11 urte	34/30 (bazk.)
Spinninga	>15 urte	17/14 (bazk.)
Tenisa	>8 urte	16/13 (bazk.)
Yoga	>15 urte	25/22 (bazk.)

Kirola	Adina	Prezioa (€)
OÑATI		
Aerobika	10-15 urte	21/15 (bazk.)
Aquagima	10-17 urte	8-12 artean
Badminton	6-17 urte	8-15 artean
Beisbola	10-17 urte	11/8 (bazk.)
Eskalada	10-17 urte	24/21 (bazk.)
Golfa	8-17 urte	30
Igeriketa	4-17 urte	21/15 (bazk.)
Mendiko bizik.	10-17 urte	12/9 (bazk.)
Mini tenisa	6-9 urte	16/13 (bazk.)
Patinajea	>4 urte	21/15 (bazk.)
Pilota	8-11 urte	12/9 (bazk.)
Piraguismoa	>9 urte	20-40 artean
Psikomotrizit.	5-6 urte	12/9 (bazk.)
Squasha	8-17 urte	11/8 (bazk.)
Tenisa	10-17 urte	16/13 (bazk.)
Xakea	8-11 urte	11/8 (bazk.)
Waterpolo	6-17 urte	8-19 artean

Kirola	Adina	Prezioa (€)
ARETXABALETA		
Aerobika	8-16 urte	20/16 (bazk.)
Badminton	8-16 urte	20/16 (bazk.)
Eskalada	10-16 urte	20/16 (bazk.)
Esku pilota	8-16 urte	20/16 (bazk.)
Golfa	8-16 urte	20/16 (bazk.)
Igeriketa	4-16 urte	20/16 (bazk.)
Multikirola	8-16 urte	20/16 (bazk.)
Patinajea	8-16 urte	20/16 (bazk.)
Tenisa	8-16 urte	20/16 (bazk.)

Kirola	Adina	Prezioa (€)
ELGETA		
Aerobika	>16 urte	13,50
Aerobik txikia	6-12 urte	13,50
Aisialdia	3-6 urte	50-60 artean
Borroka arteak	>16 urte	12
Patin-hockeya	6-12 urte	15
Mendi preben.	>16 urte	9
Multikirola	6-12 urte	40
Patin jolasak	6-12 urte	15
Pilota	6-12 urte	15
Piraguismoa	6-12 urte	20-30 artean
Squasha	>16 urte	6
Tai-chia	>16 urte	20

Kirola	Adina	Prezioa (€)
ANTZUOLA		
Aerobika	>16 urte	8
Aerobik-stepa	12-16 urte	15
Gimnasia	>12 urte	5
Ingelesa	>16 urte	66
Masajeak	>16 urte	80
Multikirola	12-16 urte	20
Orientazioa	>12 urte	30



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA
KIROL ZERBITZUA

Antzuola: 943 76 62 46
Aretxabaleta: 943 71 26 28
Arrasate: 943 77 16 77
Bergara: 943 77 91 67
Elgeta: 943 76 80 22
Eskoriatza: 943 71 53 28
Oñati: 943 71 63 75

Aitor Zabaleta, Gorko auto igoera irabazteko favorito nagusia

EDU MENDIBIL

Zapatukoa Gorko auto igoeraren 14. ekitaldia izango da. Bergara Racing taldeak antolatu du, eta 62 partaide izango dira, tartean baita debagoiendarrak ere. Lehendabiziko txanda 17:30ean hasiko da. Aitor Zabaleta pilotu bergararra da favorito nagusia.

Zapatu arratsaldean egingo dute Gorko auto igoera. Probarako entrenamenduak 16:00etan hasiko dira eta ondoren, bi txanda jokatuko dira: lehendabizikoa 17:30ean hasiko da, eta bigarrena, 19:00ak aldera. Bergara Racing taldeak antolatu du, eta 14. igoera izango da.

62 PARTAIDE

Garaipena eskuratzeko favorito nagusia Aitor Zabaleta bergararra da, Lola Diamante autoarekin. Joan den urtean berak irabazi zuen Gorko eta Euskal Mendiko Txapelketako aurtengo lehendabiziko proban ere lehena izan zen Zabaleta, Muñecas-en.

Andres Vilariño ere etortzekoa da, Reynard F-3000 autoarekin, baina azken urteotan uko egin dio probari azken momentuan. Antolatzaileak nahiko haserre daude donostiarrarekin. Adolfo Posadak ere Vilariñoaren auto bera ekarriko du. Era berean, Ralt F-3 hiru formula izango dira, Jesus Santamariak, Rafael Bereinkuak eta Montxuk gidatutakoak, hain zuzen ere. Moto-

en motorra duten 14 speed car ere izango dira auto gidarien artean.

DEBAGOIENENKO PILOTUAK

Aitor Zabaletarekin batera, Markel Agirre bergararra (Renault-5 GT Turbo), Aitor Ramirez (BMW 320 ST), David Ardions (Opel Kadett) eta Jose Angel Samaniego (Renault Clio Sport) oñatiarrak eta Emilio Huerta (Peugeot 306 GTI) arrasatearrak ere hartuko dute parte zapatuko igoeran.

Sarrerak zortzi eurotan jarriko dituzte salgai. Aurreko urteotan gertatu den moduan, antolatzaileek jendetza espero dute Gorko eta ibilbidean zehar antolatzaileen arauak betetzea eskatzen zaie ikusleei, inolako istripurik gertatu ez dadin.



Aitor Zabaletak irabazi zuen joan den urtean, eta bera da zapatuko favoritoa.

GOIENKARIA

kalitateko haragia eska ezazu bere izenez



Soilik Harategi hauetan

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.

Artisauak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

- ANTZUOLA**
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14
- ARAMAIO**
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8
- ARRASATE-MONDRAGON**
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7
- JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20
- AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10
- AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12
- KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1
- BERGARA**
ANDRES MUJIKA HARATEGIA
DOMINGO IRALA, 5
- BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6
- ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12
- ESKORIATZA**
ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11
- OÑATI**
ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5
- TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2
- GARAY HARATEGIA
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2
- SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8

RENAULT SERVICIOS

carrocería rápida

ARTE ABSTRAKTUA MUSEOETAN DAGO ONDO, EZ ZURE AUTOAN.
CARROCIERÍA RÁPIDA: KONPONKETAK 24 ORDUEN BARRUAN.

Urradurek, kolpe txikiak, kristal, argi nahiz atzerako ispilu apurtuek ez dute ongi ematen zure autoaren karrozerian. Horregatik, guk 24 orduen barruan konpontzen ditugu, alde zuzeneko hitzordu barik eta unean bertan egindako aurrekontuarekin, idatziz eta konpromiso barik. Eta hala ez bada, ordezko ibilgailu bat doan.

Pieza de Origen **Renault**
Espíritu Renault

RENAULT
recomienda **eif**

Renault Servicios. Gelditu ez zaitezten mugitzen gara.

Buruan baduzu, hemen duzu. www.renault.es

RENAULT
AUTOBERRI
S. Andres auzoa, 8. • Tel. 943 71 24 72
ARRASATE

AUKERA EZIN HOBEA

ERRESERBAK EKAINAREN
II BAINO LEHEN

IBERIA AIREKO LINEA
ERREGULARREKO HEGALDIK EGUNERO

KANARIAK
8 egun Mantenu Erdian
207€

BALEARRAK
3 egun Mantenu Erdian
103€

IRTEERAK MAIATZAREN 21-ETIK EIKAREN 30-ERA

	3 egun 2 gau	8 egun 7 gau		3 egun 2 gau	8 egun 7 gau
TENERIFE					
<i>Puerto de la Cruz</i>					
H. PERLA TENERIFE***	ME 147	207			
H. GRAN TURQUESA PLAYA****	ME 162	259			
H. PUERTO PALACE****	ME 166	273			
<i>Sur de Tenerife</i>					
APTH. UDALLA PARK***	ME 159	248			
H. IBEROSTAR LAS DALIAS****	ME 171	290			
H. IBEROSTAR BOUGANVILLE****	ME 176	307			
H. IBEROSTAR TORVISCAS PLAYA****	ME 178	315			
H. MELIÁ JARDINES DEL TEIDE****	GB 231	481			
LA PALMA					
APTU. LAGO AZUL 2LL	OB 159	228			
APTU. SOL LA PALMA 3LL	OB 198	300			
H. SOL LA PALMA****	ME 210	342			
H. H10 TABURIENTE PLAYA****	ME 219	374			
LANZAROTE					
APTH. HOTETUR TEGUISE GOLF***	OB 162	233			
APTU. HOTETUR AQUARIUS 2LL	OB 167	234			
APTH. IBEROSTAR LANZAROTE PARK***	ME 184	303			
H. IBEROSTAR COSTA CALERO****	ME 182	328			
(*) H. PAPAGAYO ARENA****	GB 239	495			
MALLORCA					
H. SAGA**	ME 103	163			
H. SAMOS***	ME 115	204			
(*) APTU. HOTETUR BELLEVUE 3LL	OB 138	227			
H. ILLETAS****	ME 142	297			
MENORCA					
(*) APTU. MENORCA	OB 119	179			
APTU. BINIBECA CLUB 3LL	OB 144	263			
(*) H. ALMIRANTE FARRAGUT***	ME 168	347			
IBIZA					
COMPLEJO GALEÓN***	ME 119	215			
(*) H. FIESTA SAN DIEGO***	ME 141	268			
GRAN CANARIA					
BUNG. MASPALOMAS OASIS 2LL	GB 156	233			
H. BUENAVENTURA***	ME 168	275			
H. IBEROSTAR COSTA CANARIA****	ME 201	392			
FUERTEVENTURA					
APTOS. HOTETUR OASIS TROPICAL 3LL	OB 167	215			
H. IBEROSTAR FUERTEVENTURA PALACE****	ME 234	407			
H. FUERTEVENTURA PLAYA****	GB 249	457			

VIAJES  IBERIA

Pr€zia eta askoz gehiago...

Irteerak
BILBOTIK eta DONOSTIATIK

902 108 108

viajesiberia.com

Produktua da

Viva t o u r s

400 Bulego baino
gehiago zure zerbitzura

DONOSTIA

- Isabel II etorbidea, 7 Tel. 943 44 44 90
- Boulevard, 27 Tel. 943 42 73 61
- Txurruka, 8 Tel. 943 42 35 50
- Matia, 48 Tel. 943 22 40 89
- Larroka Aita, 7 (Gros) Tel. 943 27 26 00
- San Martin, 6 Tel. 943 42 00 71
- ARRASATE: Kontzeziño Kalea, 18 Tel. 943 71 27 72
- BERGARA: Ibargarai, 3 Tel. 943 76 98 70
- EIBAR: Julian Etxebarria, 2 Tel. 943 70 13 40

Irteerak Bilbotik eta Donostiatik: Prezioak pertsonako logela bikoitzean eta aurretik apaituak erregimenen, balagarria malazaren 2'etik ekainaren 30era, eta hori da buelatzeko azken eguna, ondorengo hauetan izan eziz (*): HOTEU-TR BELLEVUE APTU.; ekainaren 1'etik 30era; MENORCA APTU. eta ALMIRANTE FARRAGUT H.; ekainaren 20'ara arte; FIESTA SAN DIEGO H.; ekainaren 15'era arte; PAPAGAYO ARENA H.; ekainaren 1'etik 30era. Aireko tarifikan, igorria, tasak eta gestioko datuak ez daude barne. Jantzi-erregimena: OB: Ostialua Bakarrik; ME: Mantenu Erdia; GB: Guztia Barne. **ESERLEKU MUGATUAK.**

Goienka 2a

Egubakoitza / 2004ko ekainaren 4a

Kultura
eta
aisialdia



Ekainaren
4tik 11ra




AMETSEN HEGOAK

Hegazkingintzaren inguruko erakusketa dago zabalik Oñatiko kultura etxean, ekainaren 15era bitartean

Baliteke hegan egitea gizadiaren irrikarik zaharrenetariko bat izatea; izan ere, antzinako Asiako zibilizazioek utzi dute horren gaineko idatzirik. Gizakiak bezain historia luzea duen irrika horren hamaika kontu ikusi eta ikasi ahal izango ditugu egunotan, *Hegazkingintzaren mendea* erakusketan. 50 maketa eta 11 panelek gerturatuko dizkigute hainbat datu eta bitxikeria. /15

LEIRE KORTABARRIA



INTERSPORT®

**LORAMENDI
KIROLAK**



**Bikiniak eta
bainujantziak:**

- Billabong
- Rip Curl
- O'Neil
- Protest
- First Company
- Banana Moon
- Firelly
- OZT



ARRASATE Gure txartelarekin %5 merkeago!

Paregabeko egunaren oroigarria

*GONBIDAPENEI eta EZKONTZA OROIGARRIEI
dotoretasun ukitua ematen diegu,
betiere, zuen ILUSIOAREN
kutsuarekin.*



Dei egiguzu edo bisita gaitzazu konpromiso barik. Gustura hartuko zaitugu, baita zapatu arratsaldeetan ere.

Ferrerias 32. 20500 Arrasate • Tel.: 943 770 380 • Faxes: 943 797 006. • posta-e:juriarte@teletel.es



*Kupoi hau aurkeztuz gero
%10eko deskontua ezkontza
gonbidapen eta oparietan
Ekainaren 30era arte!*



**PAPER DENDA
J. URIARTE.**

ERAKUSKETAK/ 'HEGAZKINGINTZAREN MENDEA' ERAKUSKETA OÑATIN

Zientzialari eta ameslarien historia

GIZAKIAK HEGAN EGITEA NAHI IZAN ZUENETIK LORPEN TEKNOLOGIKOEN ARORA ARTEKO GAINBEGIRATUA EGITEN DU ERAKUSKETAK

LEIRE KORTABARRIA


Gizakiak hegan egitearekin amestu izan du betidanik. Grina horrek ezagunak diren emaitzak utzi ditu, eta baita lorpen horietarako bidearen historia ere. Horiek guztiak ikusteko aukera dugu orain Oñatiko kultura etxeko *Hegazkingintzaren mendea* erakusketan, hilaren 15era arte.

Hegazkingintzaren historia lorpen teknologiko ikusgarri, baina baita horiek ahalbidetu dituzten amets eta bizipenez ere osatua dago. Izan ere, antolatzaileek dioten bezala, "zientziaren eta teknologiaren barruko alor gutxi eragin dute aeronautikak beste abentura, irudimen, balentria eta ausardia". Horiek biak aditzera ematen dizkigu egunotan Oñatin zabalik dagoen erakusketak. Egutegia duzue bisitatzeko aukera, 18:30etik 20:30era.

IKUSTEKO ETA IKASTEKO

Bi atal ditu erakusketak: batetik, hegazkinon maketak; bestetik, hegazkingintzaren aro desberdinak azaltzen dituzten panelak. 50 bat hegazkin maketa daude. Bakoitza eskuz egindako artisautez lana da, eta hainbat egilek aldi baterako utzitakoak dira.

Panelak dagokienez, hamaika dira, eta bakoitzak aro banako nondik norakoak azaltzen ditu: antzinata eta orduko kondairak eta irrikak; globoen eta gidagarraren aroa; planeagailu esperimentalak; hegazkin motordunen hastapenak; I. Mundu Gerra; gerra arteko garaia eta orduko abenturazaleak; bidaiarien hegaldiak hasi zireneko; aurrerapen tekniko handien garaia, 30-40 hamarkadetan; II. Mundu Gerra; ultrasoinuaren garaia; eta gaur egungo lorpenak. Azalpenak modu arin eta ulerterrazean daude, eta anekdotaz josita daude: antzinateko Greziako kondairak, esperimen-



Hainbat neurritako maketek eta panel informatiboek osatzen dute erakusketak.

tuen gaineko bitxikeriak, ausardia edo amets handiak egin zituzten eszentrikoak; hegazkinek gerrate handietan izan zuten zeresan handia... Horiek data eta izen zehatzez azaltzen dira.

Erakusketak Oñatiko kultura etxeko erakusketak aretoaren zirkuituaren barne dago. Aurtengo zortzigarrena da. Iaz 17 izan ziren erakusketak, eta 8.683 bisitari izan zituzten.

LOGROÑOTIK GURERA

Erakustaldiak berak hegaldi luze eta arrakastatsua egin du ibarrrera iritsi aurretik. Oñatiko kul-

tura etxeak antolatu du, baina egilea Aretxabaletako Hurbil kultura arloko enpresa da. Enrique Foronda arduradunak azaltzen digu zelan jaio zen ideia: "Madrid-Manila hegaldi sonatuaren 75. urteurrena zela-eta, erakusketak antolatzearen enkargua egin zigun Logroñoko Zientzien Etxeak orain hiru urte. Dokumentazioa bilatzeko, Madrilgo Airearen Museora joan ginen. Gero, maketa egileak bilatu genituen. Geure ustez, arlo horren inguruko nahiko erakusketak osatua da".

Logroñoko erakustaldia bukatuta, hainbat herri eta

hirik eskatu dute erakusketak hartzea. Ekainaren 15ean, Oñatitik Gortzera joango da berehala. Bertsio handian, adibidez, Donostiako Kutxaespazioan izan dute; bertsio handiak 90 maketa ditu, horietako bat 12 metrokoa.

Bitxikeriak airean

IKARO, LEHENENGOA

Greziar mitologiak diosku bera izan zela Lurretik hegaldatu zen lehen gizona, Minotauroaren labirintotik ihes egiteko.

LEONARDO DA VINCIREN EKARPENA

Lehen hurbiltze zientifikoa egin zion hegan egitearen kezari. Gaiaren inguruan 5.000 orri idatzi zituen.

'AIREA BAINO ARINAGOA'

1783an aieratu zuten lehen globo tripulatua Montgolfierrek. Ardia, ahatea eta oilarra ziren tripulatzaileak.

ZALETASUNAK HILOBIRA ERAMANA

Otto Lilienthal dirudunak mendia eraikiarazi zuen planeagailuz jauzi egiteko. Horrela hil zen, 1896an.

LEHEN MOTORDUN HEGALDIA

Wright anaiek egin zuten 1903an. 36 metro egin zituen 12 segundotan.

I. MUNDU GERRAKO HOBETUNTZAK

I. Mundu Gerra erabakigarria izan zen. Gerran aritutako herriek 400 hegazkin zituzten 1914an; 13.000, amaieran.

SAN PETERSBURG-TAMPA LINEA

Lehen airebide arautua izan zen, 1914an. 23 minutuko hegaldia egiteko, bidaiariak 5 dolar ordaintzen zituen.

LEHEN AZAFATA, 1930EAN

1930ean sortu zen azafataren irudia, Boeing batean erizain bat joatea lasaigarria zela konturatu zirenean.

UR-HEGAZKINEN ERABILERA

Espanian asko erabiltzen dira suteak itzaltzeko ur-hegazkinak. Aldi bakarrean 5.300 litro ur hartzeko gai dira.

Giza salbamendurako eta gerrarako

Hegazkingintzaren historia lorpen handien eta ametsak egia bihurtu izanaren historia da. Guztion bizimodua hobetzeko balio izan duten aurkikuntzak egin dira: esaterako, meteorologia azterketak, fenomeno natural arriskutsuen aurkako borroka, nekazal fumigazioak, esplorazioak, osasun-zerbitzuko garraioa, hornikuntza... eta zeruan idatziz egiten den

publizitatea pentsa ezinekoak izango lirateke hegazkingintzari esker izan ez balitz. Ekarpen horien bidez baita giza salbamenduan aurrerapauso handiak egin dira.

Hala ere, giza aurkikuntza oro bezala, txarrerako ere aplikatu izan dira aurrerapen horiek, batez ere, gerretan birrintzeko ahalmena handitze-ko. Hegazkingintzaren izan ez balitz, beharbada alemanek ez

lukete II. Mundu Gerra galdu izango. Espainiako Gerran, bestalde, Alemania, Italia eta Errusiarendako frogaleku izan zen Espainia. II. Mundu Gerran, gerra-hegazkinek jauzi handia egin zuten: 781.000 hegazkin egin ziren: 321.000 ehiza-hegazkin, 176.000 bonbardaketa hegazkin eta beste hainbat. Azken hauek gerrako arma beldurgarrien eta sunsitzailenetako bat bihurtu ziren.



**TXANTXIKU
IKASTOLA**

TXANTXIKU IKASTOLA Kooperatiba Elkarte

OHIKO BATZAR NAGUSIA

EGITARAU

EGUNA: 2004ko ekainaren 21a, astelehena
ORDUA: 18:00etan lehen deialdia eta 18:30ean bigarrena
TOKIA: Ikastolako aretoa (San Juan kalea 1)

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren txostena irakurri eta, hala badagokio, onestea.
2. Pedagogia arloari buruzko txostena.
3. Kontseilu Errektorearen txostena.
4. 2003. urteko kontuak eta 2004. urteko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
5. 2003. urteko gaitzirik banatzea.
6. Zaintza batzordeko kide bat aukeratzea.
7. Akta onartzeko bi kide izendatzea.
8. Eskariak eta galderak.

Oñati, 2004ko ekainaren 4a

Ekainak 4-11

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

MATRIKULAK

ARRASATE

► **Jesusi Etxeberriaren musika akademian** matrikulatzeko aukera duzue ekainaren 22ra bitartean, eskolan bertan (Iturriotz kalea, 32), 16:00etatik 21:00etara bitartean.

DEBAGOIENA

► **Lanbide Heziketan** aurrematrikulatzeko epea ekainaren 9ra bitartean izango da zabalik. Norberak ikasi nahi duen ikastetxean egin beharko du aurrematrikula. Uztailaren izango da behin-behineko matrikula.

OÑATI

► **Musika Eskolak** zabalik izango du datorren ikasturterako matrikula epea ekainaren 15era bitartean. Euren egoitzara jo beharko duzue, 18:00-20:00.

ERAKUSKETAK

ARETXABALETA

► **Gurutze Mujika margolariaren** lanen erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, udaletxeko ganbaran, eta hilaren 18ra bitartean izango da ikusteko aukera, honako ordutegian: astegunetan, 18:00-20:00; zapatuetan, 12:00-13:00.

ARRASATE

► **Homosexualitatearen inguruko erakusketa** bisitatzeko modua duzue gaztetxean, ekainaren 20ra bitartean, Udal Sexologia Zerbitzuak antolatuta.

► **Gizon eta emakumeen arteko lan eta arduren banaketa** izeneko erakusketa zabalik izango da ekainaren 7tik 18ra bitartean Emakume Txokoa, astegunetan, 17:00-20:00. Ikastetxeetako umeek egindako marrazkiak dira.

BERGARA

► **Pegatina erakusketa** dago zabalik Nahikari tabernan etzira bitartean.

► **Simon Arrieta zeramika taldearen** erakusketa dago zabalik kultura etxean, etzira bitartean.

OÑATI

► **Hegazkingintzaren mendea** erakusketa dago zabalik kultura etxean, ekainaren 15era bitartean, egunero, 18:30-20:30.

DEIAK

ARAMAIO

► **Jon Agirre kartzelaratu zutela** 23 urte direla-eta, bertso saioa egingo dute Oihane Pereak, Xabier Payak, Harkaiz Estiballesek eta Ainhoa Agirreazaldegik gaur, egubakoitza, kultura etxean, 19:00etan. Aramaioko Amnistiaren Aldeko Taldeak antolatuta du ekitaldia.

ARRASATE

► **Arrasateko Haur Eskolak** ikasturte amaiera jaialdia egingo du gaur, egubakoitza, Musakolako San Antolinen, 16:00-19:00. Ikasle, guraso eta irakasleek parte hartuko dute.

► **Gazte mugimenduen 25. urteurrena** ospatzeko ekintzak antolatu dituzte. Bihar, zapatua, omenaldia izango da Seber Altubena, 13:00etan; gero, poteoa. 19:00etan, bideo emanaldia eta pegatina erakusketa izango dira gaztetxean.

► **Aste Berdearen barne**, umeendako jolasparkea egongo da bihar, zapatua, Seber Altubena, goizez eta arratsalde; etzi, domeka, ekosistema naturalak begiratzeko mendi irteera egingo dute. Anbulatorio aurrean bilduko dira 09:00etan.

► **San Joanetako danborradan** parte hartu gura dutenek izena emateko aukera dute oraindik. Hain zuzen, 20 urtetik gorako danborradan hainbat leku daude oraindik. Horretarako, entsegetara joan eta izena eman dezakezue. San Viator Handin biltzen dira astelehen eta eguaztenero, 20:30ean.

► **Haur Dantzarien Eguna** antola-

tzen dihardute Lore Gazteak eta Txikitxu taldeek. Gonbidatu dituzten 500 umeak bazkaltzera hartzeko prest dauden familiak behar dituzte. Eskuorriak, dantza taldeen lokalean (Olarde kalean), AEDn edo Hire liburutegian.

► **50eko kintoez, 29an jaiotakoek**, ospakizuna izango dute hilaren 12an. Meza eta bazkaria izango dituzte. Izena emateko, deitu Roberto Arantzabali (943 79 01 07) edo Jose Luis Arantzabali (943 79 13 51).

BERGARA

► **Umeendako aldi baterako harrera-familiak** behar ditu Aldundiak. Tratu txarrak jasan dituzte umeok. Horren gaineko hitzaldia izango da eguenean, hilak 9, kultura etxean, 19:00etan.

► **Odol-ateratzeak** izango dira hilaren 9an, eguaztana, seminarioan, 18:30ean.

DEBAGOIENA

► **Ezkon-aurreko topaketak** deitu dituzte Oñati, Eskoriatza, Arrasate eta Aretxabaletako elizbarrutiek ekainaren 7tik 11ra bitartean. Izenematea, parrokiaren edo 943 79 17 72 zenbakian.

ESKORIATZA

► **Irakasle ikasketak** bukatu dituzten ikasleen orla banaketa ekitaldia izango da gaur, egubakoitza, Mondragon Unibertsitateko HUZEZI fakultatean, 18:00etan.

► **Eskoriatzako Ferixie** izango da bihar, zapatua, Arizmendi ikastolaren eskutik, zortzigarren urtez. Azoka 10:30ean hasiko da, baserri, artisautza, abeltzaintza... arloetan. 11:00etan, txorimalo lehiaketa, karaokea, puzgarriak... izango dira; 12:00etan, harri-zulatzailak; 12:30ean, sari banaketa, eta 15:00etan, herri bazkaria.

► **Zirkulazio eragozpenak** egongo dira bihar arte, 16:00etan, Ferixie dela-eta. Hain zuzen, Gaztañadui 15etik Aranburuzabala 12ra bitarteko bidea itxia egongo da. Autobusek goiko etxeetan, Aranburuzabala kalean, geldituko dira.

► **Gaztetxearen bigarren urteurrena dela-eta**, honako ekintzak antolatu dituzte biharko, zapatua: 17:00etan, bertso emanaldia eta triki-poteoa segidan; 22:00etan, Ozen eta Matxura taldeen kontzertua; eta 00:00etan, topa herrikoa, hori ere gaztetxean.

BASABEDAR taldea

Ikastaroa Energia fotovoltaikoa

- **Teknologia fotovoltaikoa: osagaiak.**
- **Instalazio fotovoltaikoak:** sare konexioak, egoera orokorra eta estatistikak, ingurumen legedia, energia berriztagarrien suspertze egitasmoak...
- **Dirulaguntzen tramitazioa eta kudeaketa.**

Tokia: Arrasateko Lanbide Eskola.
Egunak: ekainaren 5a, 12a eta 19a.
Ordutegia: 10:00etatik 14:00etara.
Emaitza: Pablo Burzaco (energia berriztagarrietan aditua)
Antolatzailea: Basabelar ingurumen taldea.

Izenematea: Gazte Bulegoa
Tel.: 943 77 00 65
Posta-e: basabelar@yahoo.es



RAMON AGIRRE 7 gezur txiki

ANTZERKI BAKARRIZKETA

- Ekainaren 10ean, eguna
- Eskoriatzako Unibertsitatean
- 19:00etan
- Sarrera doan




► ANTZERKIA

MIKEL LASKURAIN, 'IXA' LANAREKIN

Mikel Laskurain aktore bergararra erabateko protagonista da gaur, egubakoitza, Bergaran ikusi ahal izango dugun antzezlanean. Hain zuzen, Hika antzerki taldeak *Ixa* antzezlan aurkeztuko du. Izen bereko pertsonaiaren inguruko 70 minutuko komedia da, adin guztietako ikusleei, baina batez ere gazteei zuzenduta. *Ixa* antzokira joango da, eta konturatuko da hango jendeak ez duela agindutako lana ordaintzeko asmorik. Azkenean, bere langile eskubideak defenditzeko erabaki gogor bat hartuko du *Ixa*. Egileek diote: "Eguno gizarteko zikin-keria, alprojakeria eta kontraesan ugari biltzen dituen ikuskizun bat idatzi eta egin nahi izan dugu".

Non: Novedades aretoan.
Noiz: gaur, ekainak 4.
Ordua: 22:30ean.
Txartelak: 8 euro.





36KO GERRAN ERREPRESALIAUTAKOEI OMENALDIA, ETZI, DOMEKA

Espainiako gerran fusilatu eta errepresaliatutako debagoiendarren senide eta adiskideen batzordeak antolatuta, biktimoi omenaldi ekitaldia izango da etzi, domeka. Arrasaten izango da. Bi ekintza antolatuta dituzte: 11:00etan, meza entzungo dute San Joan Bataiatzailearen parrokiari; eta 12:00etan, lore eskaintza egingo dute haien omenez eraikitako monolitoan, Garibai etorbidean.

OÑATI

► **Seme-alaba nerabeak dituzten gurasoendako, gatazkak konpon-tzeko giltzarriak** izeneko hitzaldia egongo da eguenean, hilak 10, Elkar Hezi ikastetxearen Santa Marinako egoitzan, 19:00etan. Irekia da, baina, batez ere, Bigarren Hezkuntzako gurasoei zuzenduta.

► **Korpus eguneko ospakizuna** zelan antolatzen den azaltzeko emanaldi interaktiboa egingo du Makalena elkarteak eguenean, ekainak 10, Santa Ana aretoan, 19:30ean.

ANTZERKIA

BERGARA

► **Umorezko bakarrizketa** egingo du Enrique Loyola aktoreak bihar, zapatua, Nahikari tabernan, 00:00etan.

ESKORIATZA

► **Zazpi gezur txiki** musika eta antzerki ikuskizuna egingo dute Ramon Agirre aktoreak eta Joserra Senperena musikariak. Eguenean izango da, hilak 10, unibertsitatean, 19:00etan.

OÑATI

► **Ikuskizun zirkomikoa** umeendako antzezlan eskainiko du Zirika Zirkus taldeak etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 17:00etan. 2-11 urte bitarteko umei zuzenduta dago. Malabareak, musika, oreka jolasak, magia... izango dira.

MUSIKA

ARETXABALETA

► **Donato Goienetxe eta Agurtzane Elustondok** kontzertua eskainiko dute eguenean, hilak 10, udaletxe zaharrea, 19:00etan. Goienetxek perkusioa jotzen du, eta Elustondok, trikitia.

ARRASATE

► **Kontzertua** antolatu ditu gaurko Arrasate Musikalek. Batetik, Arrasate Musikaleko Konbo eta Big Band taldeena, Amaia Udal Antzokian, 19:00etan. Musika garaikidea joko dute.

BERGARA

► **Uzi Trio eta Los Frenos** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

ESKORIATZA

► **Ozen eta Matxura** taldeen emanaldia izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

OÑATI

► **Queens of Rock eta Mr. Pepper** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean

Zinema

OÑATI

■ OÑATIKO ZINEMA

La mala educación

Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

ARAMAIO

■ KULTURA ETXEA

En América
Egubakoitza: 22:00.

ANTZUOLA

■ FRONTOI TXIKIA

El último samurai
Egubakoitza: 22:30.

EIBAR

■ UNZAGA

El día de mañana
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztrena: 19:30, 22:15.
Eguaztrena, ikuslearen eguna.

■ RIALTO

Héctor
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ GURIDI

Troya
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:30, 20:30.

Van Helsing

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:30, 20:15.

El día de mañana
17:30, 20:00, 22:30.

A+

Bowling for Columbine
17:30, 20:00, 22:30.

Giro inesperado
17:30, 20:00, 22:30.

El castigador
17:30, 20:00, 22:30.

Muertos comunes
17:30, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

Ladykillers
17:30, 20:15, 22:45.

Mystic river
Egubakoitza: 17:00, 19:50, 22:35.
Zapatua eta domeka: 19:50, 22:35.

Lost in translation
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

El castigador
17:15, 20:00, 22:30.

Troya
Egubakoitza: 19:45, 22:45.
Zapatua: 16:45, 19:45, 22:45.
Domeka: 17:30, 20:30.

